



# ORREAGA



LH 4.MAILA

## ORREAGA

Historiako irakasle batek esan omen zuen:

—Historia odolki luze bat bezalakoa da, eta denetik sartzen da historia izeneko heste luze horretan: gertakizunak eta ametsak, borrokak eta bakeak, pozak eta tristurak... eta, batez ere odola, odol ugari. Odolki luze hori mozten badugu eta arretaz begiratu, ikusiko dugu zenbat gauza dagoen barruan, eta bakoitzak gauza bat ikusiko du, gainera. Horixe, gertatzen da historiarekin: gertakizun bera alde askotara ikus daitekeela kontalarien arabera. Nor izan kontalaria, halakoa historia! Orreagako historia jarriko dizuet adibide gisa. Orreagan, borroka handia izan zen 778. urteko abuztuaren 15ean, eta nahiz eta gertakizun bakar baten historia izan, bakoitzak bere erara ikusi zuen.

Historiako irakasle hark biboteak **kiribildu** zituen eta horrela esan zuen:

—Euskaldunok horrela kontatzen, eta kantatzen, dugu egun hartan gertatutakoa: Oihu bat entzun da euskaldunen mendietan, eta etxeko jaunak galdetu du: "Nor da hor? Zer nahi du?" Orreaga aldetik frantsesen armada handia datorrela ikusi du gizonak, eta **azkonak** zorrotu ditu, borrokarako prest. Armada handia da; lantzek kanaberazko baso bat dirudite. Etxe aurrean, aitonak esan dio haurrari: "Konta itzak zenbat diren". Eta umeak milaka frantses kontatu ditu. Baina euskaldunak prest daude etsaiari kontra egiteko: besoak **zailduak** eta armak zorrotuak. Indartsuak dira, eta harriak maldan behera aise botako dituzte... "Zer nahi dute Frantziatik etorritako gizon horiek? galdetzen dute: "Zertara etorri dira gure bakea haustera?"

Irakasleak honela jarraitu zuen:

—Euskaldunen eta frantsesen arteko borrokan triskantza izugarriak gertatu ziren. Euskaldunek armada frantsesaren zati handi bat menderatu eta birrindu egin zuten. Zenbat hezur kraskatu! Zenbat odol isuri! Euskaldunek esaten zieten frantsesei: "Ihes egin ezazue indarra eta zaldiak dituzuenak!". Eta Karlomagno erregeari: "Ihes egin, Karlomagno errege! Ihes egin, zure luma beltzekin eta zure kapa gorriarekin! Zure iloba maitea, Errolan indartsua, mendietan hilik dago!". Oihu egiten zuen: Euskaldunak garaile! Gu garaile! Badoaz, badoaz frantsesak! Non da orain lantzazko baso hura? Non dira hainbeste koloretako banderak?". Eta aitonak bilobari: "Konta itzak zenbat diren". Eta haurrak: "Ez da bakar bat ere ageri bizirik". Etxeko jauna itzul daiteke etxera, azkonak garbitu eta lo

egitera. Arranoak joango dira frantsesen haragi-puskak jatera, eta haien hezurak lurzoru gainean zurituko dira.

Irakaslea isildu egin zen. Ikasleak ikaratuta bezala zeuden.

—Aho zabalik geratu al zarete? Pentsa, ordea, historiaren alde bat besterik ez dela hori. Begira zer dioten frantsesek: Karlomagnok, frantsesen agintariak, Zaragozako erregea **menderatu** nahi zuen. Errege musulman horrek esan zion Karlomagnori "Erregaluak emango dizkizuet bakean uzten banauzue". Errolanek, Karlomagnoren ilobak, esan zuen: "Ez onartu erregaluak". Baina Ganelonek esan zion Karlomagnori: "Jaso erregaluak eta itzul gaitezen etxera". Eta Karlomagnok: "Ganelon, zoaz zu Zaragozara eta konpondu dena". Kontu horrekin Ganelon eta Errolan erabat haserretu ziren biak.

Irakasleak arnasa hartu eta honela jarraitu zuen:

—Horregatik erabaki zuen Ganelonek traizio egitea: **gorrotoz**. Esan zion Zaragozako erregeari: "Ni konponduko naiz Errolan armadaren atzean joan dadin. Zoaz zu haren kontra, eta hil ezazu". Traizioa antolatu eta gero, Ganelon Karlomagnorengana itzuli zen, erregalu askorekin. Ganelonek esan zion: "Orain zure ondoan joan nahi dut Frantziara, nire errege jauna". Eta Karlomagnok: "Denak Frantziara. Zu, Ganelon, nirekin etorriko zara armadaren buruan, eta zu, Errolan, atzeko aldean joango zara". Bitartean, laurehun mila musulmanek segada prestatu zuten Errolan hiltzeko. Armada frantsesaren buruak arazorik gabe gurutzatu zituen Pirinioak, baina Errolan Orreagara ailegatu zenean, Zaragozako erregearen gerrariak iritsi ziren borroka egitera. Traizio izugarria izan zen Ganelonek egindakoa! Frantsesek ikusi zituzten gerrari musulmanak etortzen, eta esan zioten Errolani: "Jo ezazu gerrako adarra, Errolan, zure osaba eta haren gerlariak gu laguntzera itzul daitezten". Baina Errolanek esan zuen: "Lotsagarria izango litzateke hori egitea!". Eta borrokan hasteko agindu zuen. Borroka izugarria izan zen. Lehenengo frantsesak hasi ziren irabazten, gero, ordea, frantses asko hil ziren eta musulmanek eskura zuten garaipena. Frantsesek bazekiten ez zutela zer eginik, baina, hala ere, borrokatzen jarraitu zuten "Monjoie!" beren gerrako oihua eginez. Azkenerako, hirurogei zaldun frantses bakarrik geratu ziren. Zaurituta eta odolez beterik, Errolanek gerrako adarra jo zuen. Adarra entzun zuenean, Karlomagnok esan zuen: "Denok atzera! Errolani lagundu behar diogu!" Erregea orduan konturatu zen Ganelon traidore zikin bat zela. Esan zuen: "Harrapa ezazue traidore **nazkagarri** hori". Ganelon katez lotu eta denak Errolani laguntzera joan ziren. Baina berandu zen ordurako...

Irakasleak **hasperen egin** zuen, Errolan gaixoaren zoritxarrak hunkituko balu bezala.

—Errolan hilzorian zegoen, eta ez zuen nahi bere ezpata musulmanek hartzea. Esan zuen: "Haitzen kontra jota hautsiko dut Durandal nire ezpata". Ezpata altzairu gogorrekoa zen, ordea, eta ez zen hautsi haitzen kontra. Hori baino gehiago! Ezpatarekin haitzen artean pasabide bat egin zuen Errolanek (Pirinioetan ezaguna den *Pas de Roland* izenekoa). Etsita, gerrako adarra eta ezpata gorputzaren azpian gorde zituen Errolanek, eta hantxe bertan hil zen. Orduan iritsi zen Karlomagno enperadorea, eta Errolan eta Frantziako zaldun ospetsuenak hilda aurkitu zituen. Denak hilak. Amorraturik, esan zuen: "Gogor borrokatu, mutilak!". Eta halaxe egin zuten, musulmanak menderatu arte.

Kontakizuna amaitu zuenean, ikasleak irakasleari begira geratu zitzaizkion.


—Bi historia aski desberdin, ez da hala? —esan zuen irakasleak—. Esan dizuedan bezala, bakoitzak bere aldetik ikusten du gertatutakoa. Nahi al duzue jakin benetan nola izan zen? Nahi al duzue benetako historia?

Inork ez zion erantzun.

—Tira! —esan zuen irakasleak—. Kontua da Orreagan izugarrizko gudua izan zela 778. urtean. Borroka horretan alde batetik baskoiak zeuden, euskaldunak, eta bestetik, Karlomagno, frankoen erregea eta Europako enperadorea. Zaragozako errege musulmanak esan zion Karlomagnori: "Kordobako emirraren aurka laguntzen badidazu, zure aginduetara egongo naiz". Karlomagnori oso ondo iruditu zitzaion hori, eta 778. urteko udaberrian, **gudarostea** hartu, Pirinioak zeharkatu, Iruñetik iragan eta Zaragozara iritsi zen, batere eragozpenik gabe. Baina, dirudenez, Zaragozako erregeak esan zion Karlomagnori: "Ez dizut Zaragozan sartzen utziko gudaroste handi horrekin. izugarrizko iskanbilak sortuko dituzte zure gerrariak".

Irakasleak biboteak kizkurtu egin zituen berriz ere. Ohitura hori zuen, itxuraz.

—Karlomagno eta Zaragozako erregea ez ziren konpondu. Karlomagnok, **amorrarazita**, itzultzea erabaki zuen. Ez zegoen hiria **setiatzeko** prestatuta! Itzultzerakoan, erabat haserre, enperadoreak pentsatu zuen: "Bidean dauzkadan baskoi hauek ere ez dira nire lagunak. Eskarmentu on bat eman behar diet!". Eta Iruñea suntsitzea erabaki zuen. Eta baita egin ere! Baina ez zuen kontuan hartu beren lurretara itzuli baino lehen Pirinioetako



mendateak gurutzatu behar zituela! Baskoiak erabat haserretu ziren Iruñea txikituta ikusi zutenean, eta esan zuten: "Gorriak ikusiko dituzue Orreaga zeharkatzean". Eta halaxe izan zen: baskoiek sekulako **triskantza** eragin zuten Karlomagnoaren gudarostean. Karlomagno bera aurrean zihoan, eta ez zuen kalterik izan, baina hura igaro eta gero, segada batean suntsiturik geratu zen gudarostearen atzean zihoazen soldadu guztiak. Segadan hildakoaren artean, besteak beste, Errolan zegoen, Karlomagnoaren iloba. Kontua da Karlomagnok bazuela bere historia idazten zuen kronikari bat, eta honek ematen zuen borrokaren berri (oker samar, ordea), eta handik urte askora beste idazle batek (Turolde-ek) oraindik ere nahasiagoan idatzi zuen gatazkaren kondaira, poema ospetsu batean: *La chanson de Roland*. Hor dator frantsesen historia. Bestalde, mende batzuk geroago, Frantzisko Garai Monglave baionarrak euskaldunen ikuspuntutik idatzi zuen *Altabizkarko kantua*. "Gure" historiaren olerkia, euskaldunen kantua. Biak kontatu dizkizuet lehen. Eta, orain, benetako historia ere bai. Horrelaxe da kontua!

—Nork dio hori? —galdetu zuen ikasle batek.

—Nik neuk diot —esan zuen irakasleak, harro samar.

—Historia hori zure ikuspegia besterik ez da izango, ordea —esan zion ikasleak, eta irakaslea ahoa zabaldua geratu zen, zer esan asmatu ezinik.

J. M. Olaizola "Txiliku" (moldatua)



*Orreagako guduaren oroitarria*



*Ibañeta mendateko oroitarria. Orreaga.*

DATA: \_\_\_\_\_

IZENA: \_\_\_\_\_

### IRAKURRI AURRETIK

❖ Erantzun:

- Ba al dakizu zer den Orreaga? Entzun al duzu inoiz "Orreaga" hitza?.....  
.....
- Gaian murgildu ahal izateko, bilatu Orreagari buruzko informazioa.  
.....  
.....  
.....  
.....

### IRAKURKETA

Testu hau konplikatua samarra denez, lehendabizi irakasleak egingo du irakurketa.  
Ondoren, bakarkako irakurketa egin, isilean.

### IRAKURRI ONDOREN

❖ Hurrengo ariketak egin:

1. Hauxe gertatzen da historiarekin:

- A. Gertakizun bera modu berean ikusten dute kontalari guztiek.
- B. Gertakizun bera era askotara ikus daiteke, kontalarien arabera.
- D. Gertakizun zenbait modu berean ikusten dute kontalariek.

**2. Orreagan...**

- A. 778. urteko abuztuaren 15ean izugarrizko gudua izan zen.
- B. 787. urteko abuztuaren 15ean borroka handia izan zen.
- D. 778. urteko abuztuaren 15ean borroka xumea izan zen.

**3. Nolakoa da frankoen armada?**

- A. Frankoen armada ez da oso handia, baina lantzek kanaberazko baso bat dirudite.
- B. Frankoen armada handia da; ezpatek kanaberazko baso bat dirudite.
- D. Frankoen armada handia da; lantzek kanaberazko baso bat dirudite.

**4. Euskaldunek...**

- A. ...armada frantsesaren zati handi bat garaitu eta suntsitu egin zuten.
- B. ...armada frantsesaren zati handi bat menderatu eta saritu egin zuten.
- D. ...armada frantsesaren zati txiki bat menderatu eta birrindu egin zuten.

**5. Irakaslea lehenengo aldian isildu zenean, zergatik egongo ziren ikasleak ikaratuta?**

.....

.....

.....

.....

6. Frantsesek dioten bezala...

A. Errolanek, Karlomagnoaren ilobak, errege musulmanaren erregaluak hartzeko esan zion Karlomagnori.

B. Ganelonek, errege musulmanaren erregaluak hartzeko esan zion Karlomagnori.

D. Bai Errolanek, eta baita Ganelonek ere, errege musulmanaren erregaluak hartzeko esan zioten Karlomagnori.

7. Zer egin zuen Ganelonek Frantziako kontalarien arabera? Zein izan zen traizioa?

.....

.....

.....

.....

8. Ganelon katez lotu eta denak Errolani laguntzera joan ziren. Baina berandu zen ordurako... Errolan hilzorian zegoen...

A. Errolanek haitzen kontra jo zuen bere ezpata eta haitzen artean pasabide bat egin zuen, *Pas de Roland*, hain zuzen ere.

B. Karlomagno haitzen kontra jo zuen bere ezpata eta haitzen artean pasabide bat egin zuen, *Pas de Roland*, hain zuzen ere.

D. Errolanek haitzen kontra jo zuen bere ezpata eta haitzen artean pasabide bat egin zuen, *Pas de Karlomagno*, hain zuzen ere.



9. Zaragozako erregeak zergatik ez zion Karlomagnori Zaragozan sartzen utzi?

.....  
.....  
.....

10. Karlomagnok, amorrarazita, bere lurraldera itzultzea erabaki zuenean...

- A. ...bidean zeuzkan baskoiei eskarmentu on bat ematea erabaki zuen eta Iruñea suntsitu zuen.
- B. ...bidean zeuzkan baskoien erasoak jasan zituen.
- D. ...bidean zeuzkan musulmanei eskarmentu on bat ematea erabaki zuen.

11. Zergatik gertatu zen Orreagako gudua?

.....  
.....  
.....

12. Orreagako guduari buruz hainbat ikuspuntutako kontakizunak daude:

- A. "Tuold" idazleak euskaldunen ikuspuntutik *La chanson de Roland* idatzi zuen, eta Frantzisko Garai Monglavek frantsesen ikuspuntutik *Altabizkarko kantua*.
- B. Frantzisko Garai Monglavek euskaldunen ikuspuntutik *Altabizkarko kantua* idatzi zuen, eta frantsesen ikuspuntutik oraindik ez da idatzirik egin.
- D. "Tuold" idazleak frantsesen ikuspuntutik *La chanson de Roland* idatzi zuen, eta Frantzisko Garai Monglavek euskaldunen ikuspuntutik *Altabizkarko kantua*.

❖ Bila itzazu testuko hitz hauen sinonimo bana:

1. Kiribildu: .....

2. Azkon: .....

3. Zaildu: .....

4. Menderatu: .....

5. Gorroto:.....

6. Nazkagarri: .....

7. Hasperen egin: .....

8. Gudaroste: .....

9. Setiatu: .....

10. Triskantza: .....





**IRUDIA:**

- <https://en.wikipedia.org>

**BIBLIOGRAFIA:**

- ZENBAITEN ARTEAN: *LH 4 Txanela Irakurgaiak*, Elkar, Donostia, 2003.

EGILEA: LEIRE ILINCHETA

2015